



PRENTSARAKO OHARRA

GIZARTE EKINTZAKO SAILAK SENIDEEN ZAINDARIEN ATSEDENERAKO 49 DIRU-LAGUNTZA EMON DITU URTEKO LEHENENGO 20 EGUNETAN

- **Holan adierazo dau Sergio Murillo Gizarte Ekintzako Diputatuak, EH Bilduk Zaindarien Estatutuaren aplikazioaren ganean galdetu ostean.**
- **Gaur Gernikan egin dan Kontroleko Osokoan, garraiorako txartel bakarraren ezarpena, metroa Galdakaora eroateko aukerea edo Barik txartelen iraungitzea be jorratu dira, oposizioak planteau dituan beste itaun eta gai batzuen artean.**

(Gernikan, 2020ko urtarrilaren 29an).- Hilebete honetako lehenengo 20 egunetan, Gizarte Ekintzako Sailak 49 laguntza emon ditu, etxean senideak modu ez formalean zaintzen dituen beste horrenbeste personari 15 eguneko atsedenaldea bermatzeko, eta oraindino tramitetan ari diran beste 12 eskari jaso ditu. Sergio Murillo Gizarte Ekintzako Diputatuak ezagutuazo ditu datu horreek gaur goizean Gernikako Batzarretxean egin dan Kontroleko Osokoan, Izaskun Duquek (EH Bildu), Zaindarien Estatutua arautzen dauen 192/2018 Dekretuaren garapenaren eta 140/2019 Dekretuan arautzen dan zaindarien atsedenerako eskubidearen ganean egin dauen itaunari erantzunez.

Murillok azpimarratu dauenez, 192/2018 Dekretua izan zan Euskadiko arautegiaren barruan etxean dagozan eta mendekotasuna daukien personak modu ez formalean eta ez profesionalean zaintzen dituen personen atsedenerako eskubidea bermatu eban lehenengoa. Mendekotasuna daukien persona horreei egoitza batean 15 eguneko egotaldia eskaintzen deutse, etxean dagon zaindaria arnasaldia edo atsedenaldea hartu daian.

“Holan, gizarte osoak hartzen dau bere gain etxean egiten diran zainketa horreen ardurea”, azpimarratu dau Murillok, eta horren ostean “zaindarien eta mendekotasuna daukien personen bizitza proiektua bateragarriago egiten daben” neurri eta programa asko jarri dirala martxan adierazo dau.

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusia be igon da Osokoen Aretoko atrilera, eguneko gai zerrendako lehenengo eta azkenengo gaiei erantzuteko. Haseran, Rementeriak argi eta garbi esan dau “Bizkaiko Foru Aldundiak eskuetan daukaguzan legezko baliabide guztiakaz defendiduten dituala geure eskubideak”, Amaya Fernández Talde Bereziaren / PP Bizkaiaren bozeroaleak forutasunaren eta foru erakundeen defentsaren ganean egin dauen itaunari erantzunez.

Rementeriak, Aperribain eta Bengoetxen metroaren geltokiak eregitea aurreikusten eta dan galdetzen eban Raúl Méndez EH Bilduko batzarkidearen ahozko erantzun-eske bati be erantzun deutso.

Bizkaiko Ahaldu Nagusiak zehaztu dauenez, Eusko Jaurlaritza metroaren linea barriaren ganean egiten ari dan informazino azterlanaren emaitzen zain dago, hartu beharreko erabagiak hartzeko, eta beharrak 2021ean hasteko Aldundiak daukan konpromisoa berretsi dau.

Gernikako Batzarretxera Mari Paz Losada Galdakaoko alkateordea eta Metroa Galdakaora orain plataformako kideak joan dira, eta konbidauen harmailatik jarraitu ditue esku-hartzeak.

Barik txartelen iraungitzea eta txartel bakarra

Kontroleko osoko saioan garraioaren ganeko beste gai batzuk be landu dira: Barik txartelen iraungitzea eta txartel bakarra, biak be Emilio Lobato Elkarrekin Bizkaia taldeko batzarkideak planteautakoak.

Lobatok, Barik txartelak barriztetako sortu diran ilara luzeak, iraungitu diran plastikozko txartelakaz ezelango behar barik sortu diran hondakinak, eta herritarrak izatea Barik txartela barriztetako 3 euroak ordaindu behar dituenak, kritikau ditu. Ganera, beste leku batzuetan egiten dan moduan, betiko garraio txartela eukiteko aukerea emongo dauen sistemea ezarteko eskatu dau.

Miguel Ángel Gómez Viar, Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko Foru Diputatuak Barik txartela zazpi urterik behin barriztau behar dala esan dau, txartel horreen “txipagaz erlazonautako zergaiti teknikoak dirala eta”. Gómez Viarrek, batzarretako taldearen kexak eta iradokizunak Bizkaiko Garraio Partzuergora erodateko konpromisoa erakutsi dau, baina garrantzia kendu deutso txartel barria eskuratzeko 3 euro ordaindu behar izateari, izan be, 7 urte irauten dabela kontuan izanda, “barriztapenak urtean 0,43 euro balio ditu”.

Bigarren gaiari jagokonez, Gómez Viarrek adierazo dauenez, Bizkaiko Garraio Partzuergoak badauka daborduko Bizkaiko Garraio Publikoaren Plan Estrategikoaren ganeko azterlana, eta Batzar Nagusien aurrera etorriko da, txosten horren emaitza guztiak talde guztiei azaltzeko. Horren barruan txartel bakarraren ganeko azterketa be badago. “Txartel bakarra heldu egin behar da, eta ahalik eta arinen”, eskatu dau Lobatok.

Ondasun Higiezin Zergea

Udal batzuek hutsik dagozan bigarren etxebizitzan OHZn apliketan daben errenergua eta Derioko Seminarioa zerga hori ordaintzetik salbuetsita egotea izan dira Kontroleko Osokoan jorratu diran beste gai batzuk. José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzeta Diputatuak horreen ganeko azalpenak emon ditu, Amaya Fernándezek (Talde Berezia / PP Bizkaia) eta Arantza Urkaregik (EH Bildu) eskatuta, hurrenez hurren.

Iruarrizagak jaubeak bizi ez diran eta hutsik dagozan etxebizitzetan OHZren errenergua apliketako daukien eskubidea defendidu dau, Bizkaiko Batzar Nagusien gehiengoak onartu eban Foru Arauan ezarten dan moduan. Ganera, FAEAk (Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboa) orain denpora gitxi emon dauen epai bat aitatu dau. Bertan,

atzera botaten da Bakioko etxebizitza batean aplikau dan errekgua, "etxebizitza jakin baten kasu zehatza" dala eta ez dauela foru arauaren eukia zalantzan jarten argituz.

Bigarren gaiari jagokonez, Foru Ogasuneko titularrak adierazo dauenez, bideratu dabe Zergen Koordinazinorako Organura Derioko Udalak Apaiztegi horretan OHZ kobretako egin dauen eskaria. Urkaregik adierazo dauenez, "bertan jarduera ekonomikoak egiten dira" eta "alokautako 83 lokal eta hotel bat dagoz".

Iruarrizagak zehaztu dauenez, OHZren salbuespena, Bilboko Eleizbarrutia jaube dan Derioko Apaiztegiari apliketan jako, irabazi asmorik bako erakunde guztiei apliketan jaken moduan.



NOTA DE PRENSA

EL DEPARTAMENTO DE ACCIÓN SOCIAL HA CONCEDIDO 49 SUBVENCIONES PARA EL DESCANSO DE PERSONAS CUIDADORAS DE FAMILIARES DEPENDIENTES EN LOS PRIMEROS 20 DÍAS DEL AÑO

- **Así lo ha señalado Sergio Murillo, Diputado de Acción Social, tras ser interpelado por EH Bildu sobre la aplicación del Estatuto de las Personas Cuidadoras.**
- **En el Pleno de Control celebrado hoy en Gernika se han tratado además la implantación del billete único de transporte, el metro a Galdakao o la caducidad de las tarjetas Barik, entre otras interpelaciones y cuestiones planteadas por la oposición.**

(Gernika, a 29 de enero de 2020).- En los primeros 20 días de este mes, el Departamento de Acción Social ha concedido 49 ayudas para garantizar el descanso de 15 días a otras tantas personas que cuidan de manera informal de familiares en el hogar y ha recibido otras 12 peticiones que aún se están tramitando. Sergio Murillo, Diputado de Acción Social, ha dado a conocer estos datos en el Pleno de Control celebrado esta mañana en la Casa de Juntas de Gernika y en respuesta a una interpelación de Izaskun Duque (EH Bildu) sobre el desarrollo del Decreto 192/2018 que regula el Estatuto de las Personas Cuidadoras y sobre el derecho al descanso de las mismas regulado en el Decreto 140/2019.

Murillo ha destacado que el Decreto 192/2018 fue el primero de la normativa vasca en garantizar el derecho al descanso de las personas que cuidan de manera informal y no profesional de personas dependientes en el hogar, ofreciendo a éstas últimas una plaza durante 15 días en una residencia para que la persona que habitualmente lo cuida en casa pueda tomarse un respiro.

“Se hace corresponsable así a toda la sociedad de estos cuidados que se producen en el hogar”, ha subrayado Murillo para añadir que se han puesto en marcha muchas medidas y programas “que hacen más compatible el proyecto de vida de las personas cuidadoras y de las personas dependientes”.

Unai Rementeria, Diputado General de Bizkaia, también ha subido al atril del Salón de Plenos para contestar a la primera y a la última cuestión del orden del día. Al comienzo, Rementeria ha asegurado tajantemente que “la Diputación Foral de Bizkaia defiende nuestros derechos con todos los medios legales que tenemos”, en respuesta a una interpelación de Amaya Fernández, portavoz del Grupo Mixto / PP Bizkaia, sobre la defensa de la foralidad y las instituciones forales.

Rementeria ha contestado también personalmente a una pregunta oral del apoderado de EH Bildu Raúl Méndez sobre si la Diputación prevé construir estaciones de metro en Aperribai y Bengoetxe.

El Diputado General de Bizkaia ha precisado que están esperando los resultados del estudio informativo que el Gobierno Vasco está elaborando sobre la nueva línea de metro para tomar las decisiones oportunas y ha ratificado el compromiso foral de iniciar las obras en 2021.

A la Casa de Juntas de Gernika han acudido Mari Paz Losada, vicealcaldesa de Galdakao, así como integrantes de la plataforma Metroa Galdakaora orain, quienes han seguido las intervenciones desde la tribuna para invitados e invitadas.

Caducidad de las Barik y billete único

En la sesión plenaria de control se han tratado también otras cuestiones relativas al transporte: la caducidad de las tarjetas Barik y el billete único, ambas planteadas por el juntero de Elkarrekin Bizkaia Emilio Lobato.

Lobato ha criticado las largas colas que se han generado para renovar las tarjetas Barik, la innecesaria generación de residuos con las tarjetas de plástico caducadas y que sea la ciudadanía la que tenga que abonar los 3 euros para renovar la Barik. Asimismo, ha pedido que se implante un sistema que permita, como en otras comunidades, tener una tarjeta de transporte de por vida.

Miguel Ángel Gómez Viar, Diputado de Transportes y Movilidad Sostenible, ha justificado la necesidad de renovar la Barik cada siete años "por motivos técnicos relativos al chip" de estas tarjetas. Gómez Viar se ha comprometido a trasladar las quejas y sugerencias del grupo juntero al Consorcio de Transportes de Bizkaia, aunque ha minimizado el pago de los 3 euros para adquirir una nueva tarjeta asegurando que, teniendo en cuenta que duran 7 años, "0,43 céntimos por año cuesta la renovación".

Respecto a la segunda cuestión, Gómez Viar ha señalado que el Consorcio de Transportes de Bizkaia ya tiene el estudio sobre el Plan Estratégico de Transporte Público de Bizkaia y que próximamente convocará a la Autoridad de Movilidad de Bizkaia y comparecerá ante las Juntas para explicar a todos los grupos los resultados de este informe que incluye un análisis sobre el billete único. "El billete único debe llegar y cuanto antes", ha pedido Lobato.

Impuesto de Bienes Inmuebles

El recargo al IBI que aplican algunos ayuntamientos a las segundas viviendas vacías y la exención del pago de este impuesto al Seminario de Derio son otros temas debatidos en el Pleno de Control y sobre los que ha dado explicaciones José María Iruarrizaga, Diputado de Hacienda y Finanzas, a petición respectivamente de Amaya Fernández (Grupo Mixto / PP Bizkaia) y de Arantza Urkaregi (EH Bildu).

Iruarrizaga ha defendido la potestad de los ayuntamientos para aplicar o no el recargo en el IBI a aquellas viviendas donde no vivan sus propietarios o propietarias y que permanezcan vacías, tal como establece la Norma Foral que fue aprobada por mayoría en las Juntas de Bizkaia. Igualmente, se ha referido a una reciente sentencia del TEAF (Tribunal Económico-Administrativo Foral) que rechaza el recargo aplicado a un

inmueble de Bakio como “un caso concreto de una vivienda concreta” que no cuestiona el contenido de la norma foral.

Respecto a la segunda cuestión, el titular foral de Hacienda ha señalado que ya han trasladado al Órgano de Coordinación Tributaria la petición del Ayuntamiento de Derio para poder cobrar el IBI a dicho seminario, donde, según ha subrayado Urkaregi, “se realizan actividades económicas” y “hay 83 locales alquilados y un hotel”.

Iruarrizaga ha matizado que la exención del IBI se aplica al Seminario de Derio, que es propiedad de la Diócesis de Bilbao, al igual que a todas las entidades sin ánimo de lucro.